Zeberio haraneko ermiten zehar ibilaldi historiko-didaktikoa

Kepa Perez Urraza

Euskal Herriko Unibertsitatea
kepa.perez@ehu.es

Abstract

The objective of this contribution is the didactic description of 16 hermitages silently half hidden amongst the villages and mountains within the Zeberio valley in Bizkaia. For that purpose, the author takes each hermitage and starts by giving its location followed by a short biography of the saint. Then some unknown historical facts are detailed, and information about rural customs, festivals, and local celebrations from the past and the present is provided. Finally, we are presented with a good number of pictures and photographs.

Laburpena

Bizkaiko Zeberio haraneko auzoen eta mendien artean erdi agirian eta isilean dauden 16 ermiten deskripzio didaktikoa helburu duen ekarpena da. Asmo horrekin hasi, ermita bakoitzaren kokapenaz hasten da, eta jarraitu santuen bizitzaren aipamen laburrez. Ondoren, zenbait datu historiko ineditoak zehetzen dira, eta lehen zein egun mantentzen diren nekazal ohitura, jai eta erromerien berriak ematen dira, eta amaitu, hainbat irudi eta argazki eskainiz amaitzen dugu.

Keywords: hermitage, historical fact, rural festive customs

Gako hitzak: ermita, datu historiko, nekazal jai-ohiturak.

1. Orokortasunak

1.1. Sarrera

Badira 10 urte Austarri-Korta Kultur Elkartearen asmo zahar baten ekimenez, Zeberioko ermiten ezagutza fisiko, artistiko eta historikoari hasiera eman zitzaionetik. 2000. urtean ateratako liburuxka baten aurkezpenean zera genioen: "Zeberioko Austarri-Korta Kultur Elkarteak, gure herriko ondasun kulturala ezetu asmoz, ekintza kolektibo lez, ermitarik ermita ibilaldia prestatu dau. Ondoan doan orri multzoa, helburu hori betetzeko ahalegin laburra baino ez da.

Zeberio haranaren eskoiko aldea ermitaz josita agertuten jaku. Gehienbat, leku isolatuetan, landa baten erdian, nekez auzoaren erdian. Beharbada, lehenagoko euskaldunen zenbait errito jentil egiten ziraneko tokien ordez, eta kristautasunaren eraginez, ezarritako eraikinak ditugu baselizok, ia denak eguzkia irtetzen dan lekuari lepoa emonez.

Arkitektura arloan, Zeberioko ermitak oso eraikin xumeak eta apalak dira. Azkenengo urteetan ahalegin handia egin dabe Zeberioko jubilatuek ermitok konpontzen. Santuaren egunean meza, errito zahar, errogatiba, jai kolektiboa eta konbideduen ohitura ospatzen dira ondiño. Urte askotan!"

Aipatu ibilaldia 2000ko urriaren 7an, zapatuz ospatu eta burutu zen. Martxa goizeko 7:30etan hasi zen Ermitabarrin, hamarretakoa Barañaoko San Antonen eta bazkaria Urizargo San Bartolomen. Ia 60 lagunek hartu zuten parte eta partaide bakoitzari aipatutako liburuxka dohainik eman zitzaion.

1.2. Hurbilketa bibliografikoa

Orain arte, Zeberioko ermitez egindako azterketa erreferentzia bat baino gehiago aurkitu dugu. Lehena, J.R. Iturriza historiagile bizkaitarrak, bi mende aurretiaz eman ziguna, zehazki 1793. urtean argitaratutako liburuan. Olabarrieta elizateari zegozkion ermitak aipatzerakoan 14 izendatzen ditu, hurrenez hurren, San Adrian, San Justo eta Pastor, San Antonio abad, San Esteban, Paduako San Antonio, San Roke, San Martin gotzainaren deboziopean bi, San Bartolome, Santa Kruz, San Pedro, Asentzio, Zeberioganeko Andramari eta Santo Tomas zaharra (Iturriza 1967: 344).

Bestalde, XX. mendean, gure haraneko baselizen errealitatea ezagutzeko eta plazaratzeko asmotan, bi ekarpen akademiko kontuan hartu behar ditugu. Batak, egun 35 urte burutu zen ikerketan kokatzen gaitu, eta da Jose Mª Salbidegoitiak lizenziatura-tesinarako prestatu zuen lana *El Valle de Ceberio. Aproximación a su historia*. Eta bestea, askoz ere sendoagoa, dotore-tesirako ikerketan oinarritua, zehazki, Gurutzi Arregiren *Ermitas de Bizkaia* lan erraldoia. Zeberioko ermita bakoitza azaltzerakoan honako deskriptoreak erabiltzen ditu: adbokazioa, kokapena, sarbidea, deskripzio fisiko orokorra, santuen irudien zehazpena, egungo egoera, jai, kulto eta erritoak eta oharrak.

 © Mendebalde Kultura Alkartea, 2009

Oraingoan argitara ematen dugun lantxo hau da, aurretiko lan bat osatzeko ahalegina, zehazki, 2000. urtean antolatutako haraneko ermiten ibilaldirako atera genuen *Zeberion zehar ermitaz ermita. Ibilaldirako gida laburra*, 16 orrialdeko liburuxka. Azalaren argazkia 1. irudian ikus daiteke.



1. Irudia

Harrezkero, 2006an. Zeberioko Udalak aginduta, *Zeberioko ermitak. Ermitas de Zeberio* 16 orrialdeko liburuxka bat argitaratu du testua hizkuntza bietan eta ermiten irudiak koloretan. Egilea Alex Turrillas (Erreferentzia: L.G.-D.L.: BI-1981-06). Liburuxka hori dela eta, batetik, tristea da Udalak berak lan hori burutzea, Zeberiokoa den elkarte kultural bati burutzea agindu ordez kanpoko egile bati agintzea, eta bestetik, tristeago oraindik, egile horrek ez aipatzea jatorrizko iturririk, Austarri-Kortak 2000. urtean ateratako liburuxkaren zati esanguratsuak erabat hitzez hitz kopiatu eta gero.

Gure hurbilketak, aldiz, egile horien datuez baliatuz eta dibulgazio mailan ulertu behar dena, baditu aurreko ekapenen aurrean bizpahiru desberdintasun: datu historiko gehiagoz hornitua izatea, euskaraz idatzia, eta batez ere helburu didaktiko batez eskolaumeen mundura zuzentzeko burutua izana.

1.3. Hurbilketa historikoa

Bizkaiko Arratia eta Nerbioi ibarren artean kokatua dagoen Zeberio haranak eremu geografiko jakin eta nortasun historiko-juridiko zehatza izan ditu. Erdi Arotik hasita eta 1860. urtera arte, haran geografikoa bi eremu politiko-administratibo pean eratua egon da: bata, foru-erregimeneko Olabarrietako Santo Tomas elizatea, infantzoi esparrua, eta bestea, eliz-parrokia berbera izan arren, Ugao-Miravalles hiribilduaren jurisdikzio pean zegoen Zeberio harana edo partzialitate patroia.

2. Irudia: Santo Tomas apostolua (Ribera 1953: 959).

Zeberioko ermiten administrazioa oro har, Santo Tomas eta San Lontzo parrokiaren ardurapean zegoen, baina soilik, patroi eremuko baserrien jabeek ermiten maiordomo kargua izateko ordezkaritza zuten. Bestetik, haraneko ermita historiko zaharrak bi gune geografikotan bananduak zeuden eta gune bakoitzak ordezkari bat zuen: bata, Zeberioganeko Andramari eta honi atxirik zeuden Hergoien inguruko ermitak, San Tomas zaharra barne, eta bestetik, Helbarrengo eremua, San Bartolome ermitatik hasita Ugaorainoko baselizak barne hartzen zituena.

3. Irudia. San Lorenzo martiria (Ribera 1953: 1217).

Horrez gain, azken mendeetan eraikitako ermitak dauzkagu, horien artean, Zubialdeko San Antolin eta San Roke, Ermitabarriko San Antonio eta Uriondoko Asentzio ermita berria. Beraz, Zeberioko ermiten zerrenda historikoa honela osotzen da:

Hergoien eremuan kokatutako ermitak:
- Zeberioganako Andramari.
- Lezarriagako Santo Tomas zaharra.
- Aldiñaoko San Martin (suntsitua).
- Etxasoko San Esteban.
- Baratzargo San Martin (desagertua).
- Barañaoko San Antonio.
- Argiñaoko San Adrian.
- Undurragako San Justo eta San Pastor.

Helbarrenen kokatuak daudenak:

- Santa Kurtze, izen bereko auzoan.
- San Pedro, Saldarian auzoan.
- Mintegiko Asentzio zaharra (suntsitua).
- Upo mendiko San Segismundo.
- Urizar auzoko San Bartolome.

Horrez gain:
- Uriondo auzoko Asentzio berria.
- Zubialdeko San Antolin eta San Roke.
- Ermitabarriko Paduako San Antonio.

Esandakoaren argigarri dokumental gisa, hona 1635. urtean Santo Tomas parrokiko, Zeberioko ermitetako eta Zubialde ospitaleko maiordomo karguetarako buruturiko hauteskundeak:
- "Iten, salieron por mayordomos de la Yglesia mayor Juan de Ameza de Suso y Juan de Solachi, hijo de Juan.
- Por mayordomo de la ermitas Nuestra Señora de Ceveriogana y sus adherentes Juan de Yturrondo.
- Por mayordomo de la ermita de San Bartolome y de las demás sus adherentes, Juan de Irizar.
- Por mayordomo del Hospital, Pedro de Barbachano, hijo de Pedro Ruiz.
Los cuales fueron nombrados y admitidos en los dichos oficios cada uno en el suyo por los dicho vecinos Patrones" (BKA, 781/10, 20i fol.).

Ugari dira Zeberioko Udaleko dokumentazioan ermitei buruz agertzen diren datu historikoak. Batzuk ermitetako ondasunez ari dira, zehazki, ermita bakoitzak bere mantenurako zuen basoaz eta honen ustiaketaz, beste batzuk, ordea, ermiten konponketez, santuen argizpenerako argizarian eta olioan gastatutako kontuez ari dira. Edo erretaulak eta santuak egitea edo urreztatzea, santuaren egunean egiten ziren erromeriak eta ohiturak, ermita batzuetan (San Blas, San Bartolome, Andramari, San Antonio…) zegoen serora, beata edo sakristaua… dokumentatuak daude. Azkenik, auzokideren batek hiltzeko momentuan ermitetan agintzen zituen meza kopuruen berri dakigu.

4. Irudia: Barañaoko San Antonio ermita.

Esaterako, 1636. urtean, ermita batzuek zituzten egur kargen enkate publikoa burutzen da. Eta Zeberioko lau ermita agertzen dira, horietatik hiru, jadanik desgertuak daudenak: Aretxurriagako Santiago (edo Mintegiko Asentzio zaharra), Aldiñaoko San Martin eta Baratzargo San Martin, "llamamiento a los montazgos de las ermitas… que estaban crecidos para cortar este año" (ZUA, 12. karp., 1636. urtea., Juan Gesala eskribaua).

Bestetik, 1763ko abenduaren 11an, Olabarrietako Santo Tomas Parrokiaren ardurapean zeuden ermiten ostoak enkante publikoan ateratzen dira. Eta enkante publikoaren aurrean ateratzea bi Fielek eta auzokideek batzarrean agintzen dute. Horrela dio dokumentuak, "sacan a remate y candela las hojas de los términos y montes de Elezbaso, Ascensión, Aldañano, Baratzar, San Esteban, Elezegi, Arbilduburu, Upo y Artanda, pertenecientes en propiedad, dominio y posesión a dicha fábrica" (ZUA, 47. karp., 267. fol. 1763. urtea, Pedro Rio Barañano eskribaua).

Testamenduei buruzko adibidetzat Barañao auzoko Pedro Barañano Barbatxano zeberioztarraren kasua aipa dezakegu. 1612. urtean, hilzorian ezarri zuen testamenduan bere arimaren alde agindutakoa dugu, besteak beste, Urizargo San Bartolome, Elezurriagako Santo Tomas Zaharra eta Barañaoko San Antonio ermita bakoitzean 6 meza egitea (ZUA, 1612. urtea, 7 karp., Juan Gesala eta Juan Hernani Areilza eskribauak).

1.4. Hurbilketa erlijiosoa

Kristautasunaren erreferentziak ukaezinak dira gure kulturan, izan ere mendebaleko azken 20 mendeetan fede katolikoak bizitza pertsonalean eta kolektiboan eragin nabarmena izan du eta. Kristaua izatea zera da: Jesukristoren erlijioan bataiatua izanik haren irakatsiak bizitzeko eredutzat dauzkana, hau da, Kristoren jarraitzailea izatea. Kristauen erakundetze historikoa Eliza Katolikoaren inguruan gauzatu da, eta honen izaera bi mailatan, gizarte arloan, eta norbanakoaren biografian txertaturik egon da. Olabarrietako elizatea bera, eremu juridiko-politiko legez, garai bateko Santo Tomas parrokiaren inguruan zeberioztarrek antolatutako bizitza espiritualaren ondorioa baino ez da. Elizaren eragina, arlo politiko, juridiko, ekonomiko, sozial eta kulturaleraino iristen zen.

Bestalde, mende askotan eta ia gaurdaino, gizabanakoaren bizitzan ere kristautasunaren markak nabariak dira, bataiotik hasita, izan ere, sarritan norbere izena jaiotegun horretako santuaren izena hartzetik zetorren eta. Haur, ezkontza eta heriotz pasarteak sinismen katolikoaren pean burutu dira. Eta urte askotako hezkuntza sistema bera ere doktrina eta fede katolikoaren lerro ideologikoaren pean egon da.

Kristau debozio horren eragin historikoak ermitetan antzeman daitezke, izan ere, Kristoren jarraitzaile izan ziren apostolu eta santuen deboziopean eraikiak, gurtuak eta mantenduak baitaude.

5. Irudia: Parrokiko San Migel (ZEMen atarata).

Zeberioko ermita bat baino gehiago leku ezin aproposagoa da, estresik gabeko aukerarik dugunean, eguneko bakearen orduan eta, muga gabeko denbora lasaian, gure bizitzaren inguruan gogoetak egiteko, bai dimentsio kolektiboaren norabideaz, zein ibilbide pertsonalaren zentzuaz.

1.5. Hurbilketa artistikoa

Ermitaren deskripzio fisikoak aipatzetik hasi beharko genuke. Eraikinaren kanpo aldeko elementu materialak izendatzeaz gain, elizaterpea, atari eta hesiak, kanpai, ur bedeinkaturako ontzia…, barru aldeko kulto elementuak ere bereiztea eta ezagutzea komeni da: sakristia, aldare, erretaula, koru, pulpito, konfesategi, bataio-ontziak, santuak…

Zeberioko ermitek gordetzen dituzte balio handiko elementu artistikoak eta kulturalak ere. Eraikin monumentalak batzuk (Andramari, San Antonio), Erdi Aroa baino zaharragoak diren harri landuzko kurtzeak, edo santuen taila koloreztatuak, kuadroak, eliz-jantziak, liturgia objektuak eta harriz, egurrez zein burdinaz eginiko interes bereziko artelan herrikoiak.

6. Irudia: Ermitabarriko ur bedeinkaturako ontzia.

Amaitzeko esan, Zeberioko ermitetako hainbat santu ostu dituztela 1970eko hamarkadan. Eta gelditzen diren asko Santo Tomas parrokian dagoen Eliz Museoan gordeak eta sainduak mantentzen dira. Santo Tomas parrokiak erretaula barroko zoragarria du, J. Zorrozuak aztertua duena. Baina horrez gain, ez nuke aipatu gabe utzi nahi, parrokian bertan, dagoen Zeberioko Eliz Museoa, ermitetako hainbat santuren irudiez osotua, Zeberioganeko 1817ko ontziteria, kanpaia, eta arestiko erretaularen zatia urreztatu eta polikromatuak. Lan honetan agertzen diren santuen argazkiak museo horretan egileak ateratakoak dira. Gainontzeko argazkiak, jatorria aipatu ezean, egilearenak dira.

7. Irudia: Zeberioko Eliz Museoa (ZEM).

Zeberioko ermitez aipamen labur hau, hasi Helbarrengo Santa Kurtze ermitatik hasiko gara, eta Saldarian eta Uriondo ingurura joko dugu, ondoren. Upotik San Bartolome eta Zubialdera jaitsiko gara eta

Santo Tomas zaharrera gero. Hemendik aurrera, Hergoien ingurukoekin jarraituko dugu, Zeberioganeko Andramari eta Etxaso, Barañao, Argiñao eta Undurraga auzoetako hamaika ermita ikusi eta gero, Ermitabarriko San Antonion amaituko dugu. Denetara beraz, Zeberio haraneko 16 ermita historikoen aurkezpena ahalik eta didaktikoena egiten saiatuko gara.

2. Deskripzioa ermitaz ermita

2.1. Santa Kurtze ermita

Ugaotik Artearako BI-3524 errepidearen 16. kilometroa baino lehenago, izen bereko auzoan kokatua dago, historikoki Euskal Herrian hain ezaguna den etxe-dorre, ola eta errotarekin gune indartsua osotuz. 1520. urtearen inguruan, azken hiru eraikin hauen ugazaba Martin Santa Kruz zela agertzen da, eta XX. mendearen erdira arte, horren oinordeko izan ziren Epaltza-Legorburu sendiaren izenean mantendu dira.

8. irudia: Santa Kruz ermita

Santa Kurtze jaia, maiatzaren 3an ospatzen da. Erromako Elizak, aurretiaz zeuden jentilen errito eta ohiturak ezin bazterturik, IV. mendean kurtzearen asmapena sortu zuen, Santa Elenak egindako indusketan Jesukristoren gurutzea aurkitu zuen eta, "En la excavación ordenada por Santa Elena, madre del emperador Constantino, para el hallazgo de la Cruz de Cristo, aparecieron tres cruces. Conocióse cuál era era la del Salvador por haber curado repentinamente a su contacto una mujer gravemente enferma (Ribera 1953: 1078). Lehen, ermita honek bi ate zituen, elizan sartu-irtenaz prozesioa egiten zelarik.

9. Irudia: Santa Kurtze (Ribera 1953: 454).

1550. urtean, ermita honek zuen basoak, zazpi urtetik zazpi urtera, 20 ikatz-karga ematen zituela dokumentatzen da. Bestalde, 1683. urtean, ermita suntsitzear zegoela-eta konponketa batzuk egin behar izan ziren. Hori zela eta, Eliz kabildoa eta maiordomoak 1900 erreal ordaintzekotan gelditu ziren konponketa lanetan ibili zen Pedro Mendia arotzari.

XVII. mendean Santa Kurtze ermita erabat berriztatu egiten da, eta horren egileak Zubibarria auzoko Entelladorena baserriaren jabe den Rafael Ibarrondo, Tomas anaia, Martin Betalanda eta San Juan Urabarro, laurak harginak izango dira. Idazki dokumentatua 1678. urtekoa eta bertan ermitaren luzera, zabalera eta garaiera neurri zehatzak agertzen dira (ZUA, 21. karp., 45. fol., 1678. urtea, Juan Urkiza eskribaua).

1756ko apirilaren 15ean, Pedro Andikoetxea Argiñano maiordomoa 1800 erreal ordaintzekotan gelditu zen Geronimo Argos eskultoregileari, beronek 8 hilabeteko epean Santa Kruz ermitan bi eskultura egiteko baldintza pean: bata, Jesukristo gurutzean eta bestea San Juan (ZUA, 45. karp., 1756, 76. fol., Pedro Rio Barañano eskribaua).

10. Irudia: Jesukristo gurutzean.

Urte batzuk geroago, 1793ko kontu-liburuan, gastu hauek agertzen dira: 6 erreal ateko sarraila ordaintzeko,

48 erreal kanpaiaren burdina eta ermitaren konponketarako, eta azkenik, 34 erreal farol berria erosi zelako. 1973. urtean, Helbarrengo auzokide jubilatuak ermita hau berriztatu egin zuten.

1799. urtean, Madrileko Gobernutik datorren lege batek dio, Zeberion zeuden erakunde publiko eta eliz ondasunak saldu egin behar direla. Arau horri jarraituz, Santa Kurtze ermitak zituen lurra eta haritzondoak tasatzeko agindu zen. Enkante publikoa honela hasi zen: lurrak 11 erreal balio ditu eta 41 haritzek, aldiz, 636 erreal. Enkantea 751 errealean jarrita, Juan Agustin Larrabide Areiltzak 600 erreal opatu zituen, eta ondoren Migel Goti Ezkerrenak 640 erreal. Hiru kandela piztu ziren eta hirurak bata bestearen ostean amatatu ostean, Migel Goti nagusitu zen ermitaren ondasunez (BKA, 781/10).

Helbarrenen oraindik indartsu mantentzen dira elorri ("Crataegus Monogyna", "espino albar") edo arantza erramuaren ohitura. Horrez gain, azkeen urteetan festa, erromeria, konbideduen bazkaria eta gainerako landa ohiturak ospatzen dira: dantza eta herri kirolak, indabada, argazki lehiaketa, haur olgetak…

Auzune zabalean jarraitzen den nekazal ohitura edo jai honen garapenari dagokionez hurrengo aipamen etnografikoak luzatu daitezke:

- Goizaldeko garotan elorri adarrak hartzen dira.
- Adarrean ebakidurak eginez, gurutzea jartzen da.
- Santa Kurtze ermitan abadeak bedeinkatzen ditu.
- Erramu bedeinkatuak baserriaren atarian eta soloetan jartzen dira, ekaitz, iñizitu, gaixo eta kalteen aurka babesteko.
- Zenbaitetan aurreko urteko erramua erretzen da.
- Lehen arto eta gari aleak bedeinkatzen ziren.

11. Irudia: Elorri erramu bedeinkatuak, 1994an.

Maiatzean ospatzen diren nekazal eremu jai eta ohitura hauetaz, interesgarria da Caro Barojak dioskuna 1979: 303): "…las fiestas de mayo y el solsticio de verano… son fiestas de exaltación de la vida, en efecto, y en manifestaciones múltiples: la vida de los hombres, de los animales y de las plantas, con el agua y el fuego como pricipios".

2.2. Saldariango San Blas eta San Pedro

Ugaotik Zeberiorako Arrizkozubi deitutako zubia igarota eta ezker aldera dagoen errepidea gorantz hartuta, Saldarian auzora iritsiko gara. Helbarren eremuko Saldarian auzorako sarreran bertan ezkerretara kokatua dago. Ermita hau San Blas eta San Pedro santuen debozio pean dago. Egun bietan egiten da meza. Santa Magdalenaren irudia ere bertan dago.

12. Irudia: San Blas eta San Pedro ermita

Egungo meza, otsailaren 3an, San Blas egunez ospatzen da. Santu honek Armeniako Sebaste herrian martirizatua izanik gaitz larrietatik askatzeko mirakulu asko egin omen zuen (Ribera 1953: 1000). Bestalde, San Pedro, Jesukristoren apostoluetako bat izan zen, lanbidez arrantzalea, eta Elizaren lehen aita-santua, zeruetako ateen giltzazaina. Bere meza, ekainaren 29an burutzen da. Neronen garaian, Erroman hil zuten buruz behera gurutzatua, eta Vaticanon dago ehortzia (Ribera 1953: 1154).

13. Irudia: San Blas gotzaina eta San Pedro apostolua (Ribera 1953: 1000 eta 1016).

Kontu historikoez esan, 1793. urtean, honoko ordainketa egin zela: "6 reales, coste de una cuchara de

plata para cáliz que se trajo de Bilbao para la ermita de Saldarian" (BKA, 781/10). Bestalde, 1800. urtean Juan Jose Goti Etxaso Fielak Zeberioko ermitez egiten duen lerrokapenean, Saldariango San Blas eta San Pedro ermitaz etxetxo bat, errentadorea, soloa eta baso bat dituela agertzen da, bai eta urteroko errenta, "tiene también una casilla reedificada de nueva planta por la Fábrica de esta Parroquial en la que habita Juan de Ybarrondo y pegante a la misma casa y ermita una porción de heredad de pan sembrar y paga de renta en cada un año ciento y quince reales y siete maravedíes según lo estipulado en la escritura de su razón" (BKA, 781/10, 20 fol.).

14. Irudia: San Blas eta San Pedro.

Ermita honek aldamenean, etxe bat Seroraetxe deitzen dena eta soloa dauzka, eta Olabarrietako Santo Tomas Patroi Elkargoaren jabetzapean dagoz. Urtero San Blas egunean, auzokoek erromeria txiki bat antolatzen dute eta Ugaoko jende askok hartzen du parte.

15. Irudia: San Blas eguneko pintxo-jana, 1985ean.

2.3. Upoko San Segismundo

Upo deitutako mendian kokatua dago, eta Zeberio eta Zaratamo herriek erdibana duten ermita da, udaldermio bakoitzaren pean baitago baselizaren teilatuaren alde bakoitza. Aldamenean landa edo zelai ederra dauka, eta ermitaren atze aldean, Bilboko "Cinturón de Hierro" deitutako babes sistemaren ametralladora habia.

16. Irudia: Upoko landan San Segismundo ermita.

San Segismundo edo Sabakondio deitutako santua da bertan ospatzen den jaia, uztailaren erdi aldean. Samako gaitzen aurkako zaindaria dela esan omen da. Festa eta erromeria alaia egiten da oraindik, urte bakoitzean aipatu Zeberio eta Zaratamo herriak jaien antolaketaz arduratzen baitira txandaka.

17. Irudia: San Segismundo eta San Sabas.
http://es.wikipedia.org/wiki/Segismundo eta
http://www.magnificat.ca/cal/esp/12-05.htm

San Segismundo Burgundiako errege izan zen 516tik hil zuten arte. Hainbat gudatan inplikatua egonik, heriotzaren ondoren martiritzat jo zen eta Elizak kanonizatu egin zuen. Bere jaia, maiatzaren 2a da. Bestalde, San Sabas, Jerusalem-en ondoan jaio zen, eta 500. urtearen inguruan bizi zen. Anakoreten burua izanik, hainbat herexiren kontra borrokatu zuen. Bere jaia abenduaren bosta da.

Lehenagoko mendeetan, San Sabas eta San Migel ermita ere deitzen zen, "La ermita de San Sabas y San Miguel de Upo, que es proindiviso de este Valle y la Anteiglesia de Zaratamo, tiene en su circunferencia un monte arbolar con su tierra y árboles..." (BKA, 781/10, 20 fol.), idatzi zen orain dela 200 bat urte, eta basoak zazpi urtetik zazpi urtera, 100 egur-karga ematen zituela.

2.4. Mintegiko Asentzio

Kristauentzat Asentzio egunean, Jesukristoren zerurako igoera (erdarazko *ascensión*), ospatzen da. Horren omenez sortutako ermita da, eta jaia, egun aldakorra duena, maiatzean burutzen da. Ermita hau Areiltza eta Uriondo auzoen artean dagoen Mintegiko baserrien gainean kokatu zegoen. Zeberioko Udaletxeko dokumentazio historikoan Aretxurriagako Santiago ermita lez ezagutzen zen.

Horietako datu batek zera diosku: 1617. urtean, Zeberio haraneko behe aldeko ermiten maiordomoa, Juan Beti Olatzar alde batetik, eta Gaztelu eta Elezabeitiako Juan Barrenetxea Gallano pintorea bestetik, adostasun batera heldu ziren eta zen, Aretxurriagako Santiago ermitarako erretaula margotzea eta urreztatzea 48 dukatean (ZUA, 8. karp. 1617. urtea, Juan Gesala eskribaua).

18. Irudia: Asentzio ospakizuna (Ribera 1953: 582).

XIX. mendearen hasierako datuak, zehazki 1800. urtekoak zera diosku: Uriondo auzoaren ondoan kokatutako ermitak bere inguruan baso bat zuela eta egurraren mozketatik mozketara 400 egur-karga ematen zituela, "La ermita de Ascensión que se halla en la proximidad del barrio de Uriondo tiene también en su circunferencia un monte arbolar titulado de la Ascensión con su tierra y árboles que podrá dar de corte a corte 400 cargas de montazgo poco más ó menos" (BKA, 781/10, 19i fol.).

19. Irudia: Asentzio zaharra, ermita hondatua.

Aretxurriaga basoan lekutua zegoen, Mintegi baserriaren goi aldean, eta betidanik, Santo Tomas Elkargoak izan duen Asentzio deitutako basoan. Erromeri ospetsua burutzen zen bertan. 1936ko gudan jausitako bonba batek teilatuaren zati bat apurtu zuen, eta azkenengo urteetan erabat suntsitu, eta desagertutzat eman daiteke. Gaur, harri multzoa besterik ezin da ikusi. Ermita honek atari erromanikoa zuen, 1970eko hamarkadan ostu zutena.

20. Irudia: Atari erromanikoa, lapurtua. 1972

2.5. Uriondoko Asentzio

Uriondo auzoan bertan kokatua dagoen ermita hau nahiko berria da, 200 bat urte dauzka. Auzo bereko Olarra baserriko seme bat, Joakin Arana Argentinako

Buenos Aires aldera dirua egitera joan zen, orduko esaldiaren arabera, “a correr fortuna”. Han aberastu eta horren esker onez, jaiotako Uriondo auzoan ermita bat eta abadearentzat etxea eraikitzeko dirua agindu zuen. Uriondo auzoa eliz parrokiatik hain urrun egonik, eta bestetik, auzoan etxe ugari egin zirela konturatuz, gehi Jaungoikoa bere aberastasunaren iturritzat joaz, 1787. urtean, erabaki zuen Joakinek ermita eraikitzea.

21. Irudia: Uriondo Asentzio ermita berria, 1985ean.

1795eko maiatzaren 18an, Santo Tomas parrokiko abadeek Calahorrako Gotzaitegiko Epaitegiko Manuel Justo Redondo Prokuradoreari boterea eman zioten, eta Uriondoko auzoko jabeei eta errentadoreei baldintza bat ezarri zieten eta zen, bataio, ezkontzak eta hiletak parrokian bertan egitea, eta inolaz ere ez, eraikiko zen ermita berrian (ZUA, 1795. urtea, Pedro Donato Ibarreta eskribaua).

22. Irudia. Asentzioko korua (Labayru 1987: 8)

Asentzio jaia ere ospatzen da, baina bai eta San Joakin, Mariaren aita eta Jesukristoren aitona santua, fundatzailearen omenez. Joakin Aranak, bere ondasunak Antonio Patxi Iturriaga Arana lobari utzi zizkion. Aldameneko etxeari Ermitaondo deitzen zaio, eta Olarra baserria bezala, Iturriaga sendiaren jabetzapean dago.

23. Irudia: San Joakin (Ribera 1953: 1228).

2.6. Urizargo San Bartolome

Urizar auzoan kokatua. Honekin batera, Solatxi eta Artiñao auzokoek ospatzen duten jaia da, abuztuaren 24an egiten dena, lehen bolatoki eta guzti.

24. Irudia: Ermita eta ur bedeinkaturako ontzia.

Baseliza honen elizpea oso polita, batez ere, aurre aldeko zurezko torneatu multzoa hiru lerrotan.

25. Irudia: San Bartolome. Zurezko hesia.

Jesukristoren lehen apostoluetako bat izan zen Bartolome (Natanael ere deitua). Indian ebanjelioa zabaltzen aritu zen, eta ondoren Armenia ingurura pasatu zen. Bere gorpu sakratua Erromako San Bartolome elizan gurtzen da (Ribera 1953: 1240).

26. Irudia: San Bartolome (goian), San Fabian eta Sebastian (ezk.) eta San Gregorio (eskm.). (Ribera 1953: 1240, 971 eta 1086).

Ermita honetan San Sebastian martiria ere badago. Urtarrilaren 20an ospatu ohi da bere aldeko jaia. Kapitain kargua zuen San Sebastianek, eta 288. urtean fede kristauaren alde bizia galdu zuen (Ribera 1953: 971). Ermitan gurtzen den beste santu bat San Gregorio gotzaina da, maiatzaren 9an ospatzen dena. Garai baten egun honetan balde zabaletan eramandako arto aleak bedeinkatzen ziren, gero soloan ereiteko.

27. Irudia: San Bartolome eta San Sebastian.

Aurkitu dugun lehen dokumentu historikoan, 1550. urtekoa, San Bartolome ermitak zuen basoak, 14 urtero 60 egur-karga ematen zituela agertzen da. 1587an, ermitaren kontu liburua hasi zen. Bertan, ermita etxe, soloa, hariztia eta kareharrizko kantara zuela agertzen da.

Zeberioko ustezko sorginen aurkako auzian, 1556. urtekoan, hainbat aipamen egiten dira San Bartolome ermitan bizi zen seroreaz. Esaterako, lekuko baten arabera, San Bartolomeko *freilak* zera esan omen zion, "San Juan egunez bedeinkatutako mimentzez kurtzeak eginda, soloko lau bazterretan lurperatuz, gariak ez zirela galtzen". Edoeta, 1555. urtean, andra batzuek, San Bartolome eguneko bezperan Marina Gabiria *freila* edo seroreari ermitako giltza eskatu ziotela, errezatu eta argizarirako limosma eman gurean, baina aipatu seroreak ez ziela giltzarik eman, "e asimismo, dijo que podía haber un año, que una víspera de San Bartolomé pidieron la llave de la dicha ermita a la dicha freila para entrar en ella y hacer oración y dar limosna para lumbre, y nunca pudieron quitar la dicha llave..." (RChV, 1310 Leg., 2967-2, karp., 34i. fol.).

1754ko martxoan zenbait auzokide patroik, Patxi Larrea Larrakoetxea Fiel errexidorak eta Juan Urizar eta Patxi Ipiña Ereñoza maiordomo direlarik, zera adierazi zuten: San Bartolome ermita suntsitzear zegoela eta konponketarako hainbat baldintza ezarri zituzten: hargin lanetarako hormak, neurriak, masetarako kare, are eta harrien proportzioak. Eta aurre aldeko egurrezko hezirako: 14 poste, 3 frontal, eta balaustradaren neurri zehatzak (ZUA, 44. karp., 41 fol. Pedro Rio Barañano eskribaua).

1757. urtean, Santo Tomas Patroi Elkargoaren kontura 496 marabedi balio zuen kanpai berria erosi zen; ermitan kanpaia jartzea eta hiltzak 13 erreal kostatu ziran. 1794.ean, Santo Tomas Patroi Partzialitateak, ermitaren alboko etxea eta soloa errentamenduan hartzeko, erremate publikoa egin zuen. Juan Etxebarria, 163 erreal ordainduko dituela esanez, 6 urterako errentadore izango da (BKA, 781/10).

2.7. Zubialdeko San Antolin eta San Roke

San Antolin eta San Roke santuak, hurrenez hurren, irailaren 2an eta abuztuaren 16an goralduak izaten dira. San Antolin Europatik Gaztela aldera joan zeneko gotzaina izan zen. San Roke, ostera, epidemiak jotako pertsona gaixoen zaindaria da. Zeberion zegoen ospitalearen (baso batzuen jabe zen gainera), eta ermitaren arteko lotura San Roke santua da.

28. Irudia: San Antolin gotzaina.

Ermita honen jatorria Olabarrietako Infantzoiak eta Zeberioko Patroiak elkarren aurka izandako auzi batek dioenaren arabera antzeman daiteke. Ermita hau, Zubialdeko ospitaleko (oraintsu arte Solatxi taberna egon dena) gaixoak meza entzun ahal izateko sortu zen. Aipatu partzialitate bien artean eginda eta ordaindua. Kapilla eta aldarea 1627. urtean amaituak zeudela dirudi. Baina 1677. urtera arte ez zen lortu meza emateko baimena. Beraz, 50 urteko prozesu luzea izan zen ermita honen taxuketaren inguruan.

29. Irudia: San Roke, zauria erakusten.

Bi datu solte emateagatik, bata 1627ko urriaren 25ekoa da, non "el Licenciado D. Martin de Echauz, Arcediano de Vizcaya, Dignidad y Canónigo de la Catedral de Calahorra y La Calzada, comisiona al Vicario de Arratia Pedro Saenz de Gortazar para que vea el estado del altar y capilla de la recién construida capilla". Eta bestea azaroaren 15ekoa, "El Vicario realiza la vista ocular y testifica que la capilla y ermita estaba decente para decir y celebrar misa y en lugar acomodado para que los pobres impedidos del hospital puedan oirla (BKA).

Ia ehun urte geroago, 1765eko irailaren 1ean, Ospitaleko maiordomo zen Martin Urteaga zeberioztarra eta haraneko bi Fielek Ramon Villalon pintore eta urreztatzaile bilbotarra izendatu zuten, aurretiaz Luis Foncueba-k San Antolin, San Roke eta beste sainduez egindako urreztaketa baloratzera. Kontuak honela agertzen dira: "el dorar y estofar el cuerpo de San Antolin en 210 reales, el de San Roque, 195 reales, por el de Jerusalem, Cristo, Maria Santísima y San Juan 70 reales" (ZUA, 48. karp., 116. fol., 1765. urtea, Pedro Rio Barañano eskribaua).

San Antolin eta San Roke ermita hau Zeberioko plazan egonik, Udaletxearen eta ospitalaren aurrez aur, bazegoen bolatoki ospetsua, teilatu eta guzti, egun desagertua dagoena, eta bere kokapen zehatza zen Egia auzorako zubia igaro bezain laster, eskuma aldera eta errekaren gainkaldea, Leonsolo deitutako lekuan.

30. Irudia: Egiarako zubia eta San Antolin ermita.
I. Ojanguren, 1940
http://www.guregipuzkoa.net/beta/photo/7723/

1960eko hamarkadan Zubialde auzoan bertan, eliza berria eraiki zen, eta ermita honek zenbait erabilera ezagutu ditu. XVIII. mendean San Roke jaia ospatzen zen, plaza publikoan dantza saio publikoa zegoen. Horietako batzuk, fandangoa (lizuna omen zena), *Billantzikoa* eta *Txiripitaina* ziren, gehiago edo gutxiago baimenduak edo onartuak, eta ondorioz, herriko agintzarien eta auzokideen artean auziak edo kereilak sortu izan ziren (BKA, 1950 leg., 13. zkia.). San Antolin jaietan berriz, zezenak toreatzen ziren, eta edurrez egindako 'limonada' berezia edaten zen. Egun aldiz, San Antolin jaia, Zeberio herri osoaren ospakizuna bihurtu da, eta azkenengo urteetako festek egundoko oihartzuna izan dute bertan eta inguruko herrietan. San Antolin ermita zaharra egun, eskolaumeentzako ludoteka bihurtuta dago, eta elizaterpea zena, denda.

2.8. Barbatxaoko Santo Tomas Zaharra

J.R. Iturriza (1967, 344) historiagileak, aspaldiko datu bat ematen digu, 1190. urtekoa, eta Santo Tomas Zaharra ermitaren esistentziaz ari da. Barbatxao eta Ereñotza auzoen erdibidean eta ezker aldera kokatua dago, (E)Lezurriaga deitutako basoan. Zeberio haraneko lehen parrokia izan zela esaten da.

3I. Irudia: Santo Tomas zaharra.

Santo Tomas "alias Kantuariense" deituaren jaia abenduaren 29an ospatzen da. Eliza katolikoaren eskubideak babestu nahi izan zituelako Ingalaterrako Enrike II erregearen zigorra jasan behar izan zuen, eta katedralean hil zuten 1170. urtean (Ribera 1953: 142). Ermita honetan, defuntuen ogia deitzen den erritoa burutzen zen.

32. Irudia: Kanterburiko Santo Tomas gotzaina. (ZEMen aterata). (Ezkerrekoa, Ribera 1953: 142)

Olabarrietako parrokia berriaren eraikuntzaz ipuin batek zera dio: Santo Tomas Zaharra ermita egiteko Mandoitik idiekin harriak ekarri zirela. Baina, Hergoiengoek ermitaren ordez parrokia egitea gura zutela, eta gauez joaten ziren (E)Lezurriagara, harri guztiak idiekin hartu eta Elizondora eramaten zituztela.

Dokumentazio historikoari dagokionez, bertako obrak zirela eta, "se pagaron 18 reales a Fernando Madariaga carpintero por el trabajo que tuvo en retejar la ermita de Santo Tomas *Zaarra*" (BKA, 781/10).

2.9. Zeberioganako Andramari

Abuztuaren 15ean ospatzen da bere jaia eta 1950. urtean, Pio XII Aitasantuak sinismen dogma ezarri zuen Mariaren zerurako Jasokundea, edo gazteleraz, "Asunción de María" (Ribera 1953: 1223). Dirudienez, XVI. mende erdia baino lehenago debozio handiko ermita zen.

33. Irudia: Ezker.: Jasokundea (Ribera 1953: 1224); Eskum.: Lapurturiko Andramari (Lizarralde 1934: 256)

Oso ospetsua izan da eta da Zeberiogana auzoko Andramari ermita. Eta aberatsa, 1686. urtean, egin zen lerrokapen edo inbentarioan agertzen den lez: bitxiak (joyak), etxe, solo, baso eta mitoetan ere bai. Beronenak ziren, gaur egun Zeberioko Udaletxea kokatu aurretik egon zeneko etxea, zutik dirauen Egia auzoko Andramari baserria, eta Azkonarzuloeta, Uyondo... basoak.

34. Irudia: Andramari. I. Ojanguren, 1940
http://www.guregipuzkoa.net/beta/photo/4228/

Beste datu historikoei bagagozkie, 1619ko irailaren 22an, Juan Arana Etxaso maiordomoak, Okendoko Martin Ezkaia (edo Etxaga) kanpai-egilearekin auzi bat du, honen aitak Andramari ermitako kanpandorrerako kanpaia egin zuenean akats bat izan zuela, eta ondorioz, molde berriak egin eta egosi egin behar zela. Kanpaia Okendora eramatea Martinen ardurapean izan zen eta ekartzea berriz, maiordomoena (ZUA, 8. karp., 1619. urtea, 55. fol., Juan Gesala eskribaua).

1753ko urriaren 28an, Andramari ermitarako erretaula egitea erabaki zen. Batetik, maiordomo legez, Martin Arteaga Elorriaga zegoen, eta bestetik, Domingo Gutierrez eskultura-egilea. Honek erretaularen azpiegitura gaztainondoz bete beharko du, eta tailak eta zutabeak intxaurrondoz (ZUA, 44. karp, 1753, 125. fol., Pedro Rio Barañano eskribaua).

Hurrengo urteko uztailean, Antonio Arteaga Rekalde abadeak Juan Agirre eskultura-egile maisua izendatu zuen Domingo Gutierrezek egindako lanak berrikusteko, hau da, aurretiaz ezarrita zeuden baldintzen arabera bete zirenentz aztertzeko. Agirrek erretaula ikusi eta baldintza gehienak bete zirela baieztatzen du, hiru izan ezik, "una voluta de las primeras columnas del nicho principal, unos adornos pegantes a los óvalos en sus clavos con los colaterales, y que tiene que añadir a los arbotantes de los colaterales del cuerpo de arriba" (ZUA, 44. karp, 1754, 103. fol., Pedro Rio Barañano eskribaua).

Mende honetan, inguruko herrietan entzute handiko debozioaz gain, festa handiak egin izan dira Kofradi egunetan: bolatoki, albokari, janari, erromeria,... eta bestelako ohitura eta jaiak. Ermitak, aldamenean Abadetxea deitutako etxea ere badauka, Olabarrietako Santo Tomas Elkargoak eraikitako etxea izan zan. Elizaterpeak ermita guztia inguratzen du, bertan mahai luzeak daude, urtero Andramari jaietan auzokideek bazkaltzeko erabiltzen direnak.

Andramari ermitaz ari garelarik, ezin da aipatu gabe utzi, Santanok eta Barriok egiten duten koruko egurrezko apaindura dotorearen deskripzioa: "sareta-korua, kareleko oholtzan kalatuzko sarrailbegidun baoak dituena" (se alza un coro de celosía con dos registros de vanos de bocacalle caladas en la tablazón del antepecho. Es una tribuna de estructura constructiva sencilla, pero que sirve de soporte a una compleja y abigarrada ornamentación de talla y pintura (Santana et. al. 1996: 247).

35. Irudia: Zeberioganeko korua (Santano 1996: 210)

Koroak hain du balio artistikoa handia, ezen aipatu egileek honela amaitzen dute: "koru hau XVI. gizaldiaren lehen zatiko artisauen asmo kromatikoaren originaltasuna ondoen biltzen duen arotzia lanik bikainenetarikoa da" (Santana et al. 1996: 247). Beheko argazkietan ikus daitezke artelan honen xehetasunak.



36. Irudia. Zeberioganeko koruko apaindura (Santano 1996: 211)

Andramari santutegiak ohore eta ospe handia izateaz gain, bere omenez hainbat jai burutzen ziren: beheko landako bolatokian (egun dirauena), erromeriak, Graziano Lekue 'Txisperue' albokariaren entzunaldiak, eta batez ere, elizaterpeko mahai eta aulki luzeetan herri bazkariak. Meza eman San Juan egunez ere ematen zen.

37. Irudia: Zeberioganeko mahaiak, 1985ean.

Ipuin batek dioenez, Andramarirena zen urrezko lingotez osotutako behi narrua, aldameneko haitzulo batean gordeta omen dago. Zeberiogana eta Ereñotza bitartean dagoen kareharriz osotutako lekuan. Horrez gain, aspaldiko organo historikoa desagerturik badago ere, oraindik, herri-zeramikaz egindako katilu, pitxar eta plater historiko eta dotoreak gordetzen dira.

38. Irudia: Zeberioganeko ontziteria (ZEMen atarata)

2.10. Aldañaoko San Martin

Zeberiogana auzotik Mandoia mendira goazela, Ametzolagoti baserritik kilometro batera kokatua zegoen ermita da. Orain dela bi mende, 1793. urtean, harrizko zorua jarri zitzaion, eta oraintsu arte, harrizko ateburua mantendu izan bada ere, gaur egun, ia suntsitua dago.

39. Irudia: Aldiñaoko San Martin atari suntsitua, 1972.

Martin Deuna, Frantziako Tours herriaren inguruan 397. urtean hil zen santua da. Tradizioak dioenez, hotz handia egiten zuen egun batez zaldi gainean zebilela, pobre batekin topo eginik, bere kapa erdibana egin zuen (Ribera 1953: 1352).



40. Irudia: San Martin kapa txiroei ematen (Ribera 1953: 1353). Kanpaia (Martija, 1982: 53).

Ikus Baratzargo San Martin ermitaz Nemesia Gorrotxategik esandakoa. Ez ahantzi, XIX mendearen

erdi aldean, Gorrotxategi abizena, Gorositu auzoko Matxinena baserrian kokatzen zela, eta hemendik adar bat, Ametzolagotira joan zela, eta beraz, Nemesiaren aurrekoek, Baratzar eta Aldiñano inguru hauek ondo ezagutzen zituztela.

Datu historikoei bagagozkie, 1793. urtean, Juan Jose Goti eta Tomas Ozerin Argiñano maiordomoek aurkezten dituzten kontu arrazoietan honako ordainketak egin zituztela agertzen da: "51 reales y 22 maravedies pagados por jornales de 6 oficiales y 3 peones que se ocuparon en hacer la losadura de la ermita de de San Martin de Aldiñano. Iten, 36 reales por la cal empleda en dicha losadura. Iten, 40 reales pagados por las 5 carretadas de losa compradas para dicho enlosado. Iten, 56 reales de cinco carreteros que se ocuparon en la conducción de dichas losas" (BKA, 781/10).

2.11. Etxasoko San Esteban

Hergoiengo Etxasoko San Esteban ermita, auzoaren goialdean kokatua dago, isolatua eta solo baten erdi aldean. Barruan San Esteban santuaren figura dugu, bere festa abenduaren 26an ospatzen da. Elizak dioenez, Jesukristoren jarraitzailea izateagatik, harri jaurtiketaz hil zuten martiria da.

41. Irudia: San Esteban harrikatua (Ribera 1953: 128).

42. Irudia: San Esteban (ZEMen atarata).

San Estebanen omenezko meza eta, auzoan bertan, jaia ospatzen da. Besteak beste, bazkalaurrean ardoa, pintxo jana, eta oilasko zein untxi animalien zozketa eta erromeria ere burutzen ziren. Egun, meza eta jaia bera mantentzen dira, idi-probak, bai eta baserrietan ohiko bazkal-konbidatuak ere.

43. Irudia: Idi-probak Etxaso auzoan, 2008an.

Beste zenbait ermitaren antzera, San Esteban baselizaz dugun lehen datu historikoa, 1550. urtekoa da. Data horretan, Zeberio haraneko ermiten ondasunen lerrokapena burutu zen, eta Etxasoko San Esteban ermitaren basoak agertzen dira, eta datu zehatz lez, hamalau urteko tartegunetan 120 egur-karga ematen zituela esaten da. Ondorengo urteetako dokumentuetan, San Esteban ermitak, Elexiri deitutako beste baso bat bazuela azaltzen da, eta 70 egur-karga ematen zituela mozketa bakoitzean. 1793. urtean, maiordomoak 42 erreal ordaindu zizkion Martin Barañano Moiari, honek 150 haritzondo landatu zituelako (BKA 781/10, 56i. fol.).

44. Irudia: San Esteban ermita Elizegi landan.

2.12. Baratzargo San Martin ermita

Etxaso auzoko Etxerreta baserria igaroz eta Barañao auzorako norabidean aurkitzen zen ermita desagertu hau. Eliza Katolikoak bi San Martin egun ospatzen ditu: bata, arestiko Aldiñaoko ermitaz esan dugun San Martin gotzaina, azaroaren 11koa, eta bestea, San Martin aita santua eta martiria, azaroaren 12an ospatzen dena.

Aldañao inguruan beste San Martin ermita bat bazegoen, eta Baratzargoaren moduan hondakinak bakarrik gelditzen dira. Nemesia Gorrotxategi Sagarduik zioenez, eta berak bere aurrekoei entzunda, Baratzargo San Martin ermita honetatik, Aldañaoko beste San Martin ermitara izurriteen (epidemiak) aurka egiteko, santua lepoan hartzen zen eta prozesioz otoitzak burutzen ziren.

San Martin ermitaz dugun lehen datu historikoa, 1550. urtekoa da. Data horretan, Zeberio haraneko ermiten ondasunen zerrendaketa burutu zen, eta Baratzargo San Martin ermitaren basoa agertzen da, hain zuzen ere, hamalau urteko tarteetan 100 egur-karga ematen zituela agertzen da.

1800. urtean, Zeberio haranean zegoen erruki eta otoi-egoitzen ondasunak saltzeko agindua eman zen erret-agindu baten bidez. Garai horretan burutako txostenak dioenez, Baratzargo San Martin ermitak zuen hariztiren mugak hauek dira: sortaldetik Juan Antonio Ipiñaren hariztia; hego eta iparraldetik Barañanoko Joantxena baserriaren hariztia eta mendebaletik, ostera, Pedro Aldekoaren hariztia. Azaleraz, ermitaren lekua eta bidea kenduta, 1888 estado, eta horrez gain era guztietako 208 haritzondo. Lurra eta zuhaitzok errentan, 60 erreal dira, eta salduz gero, 3845 erreal (BKA, 781/10).

Ermiten ondasunen salketaz, aipatu errege-agindua jarraituz, 1800ko abenduaren 7an, Baratzar basoaren erremate publikoa egin zen. Txomin Pikatza eta Juan Idirin maiordomo, eta Juan Jose Goti eta Antonio Jugo, hurrenez hurren, Patroi eta Infantzoi Partzialitateko Fiel Errexidore Sindikoak lekuko zirelarik, tasazioaren araberako posturapean, Migel Goti Ezkerrena jabeak 300 pesoko erret-balea eskaini zuen. Hiru kandelatxoak pizturik eta beste inork pujatzen ez zuelarik, Baratzargo San Martin basoa Migel Gotiren jabetzapean gelditu zen (BKA, 781/10).

2.13. Barañaoko San Anton(io)

Barañao eta Orbetzu auzoen artean kokatua dago leku isolatuan. Bertara heltzeko, Ugaotik Artearako errepidean Ermitabarri eta Isasi auzoak igaro eta gero, ezkerretara dagoen auzobidea hartuko dugu, eta Ibarrondorako norabidea, errepidearen erdi aldean edo, ezkerretara eta goratanko bide asfaltatua hartuko dugu. Barañao auzoan bertan, ezkerreko baserrien artean eta aurrera jarraituz, 200 metrora ermita aurkituko dugu.

45. Irudia: San Antonio ermitaren harrizko gurutzea.

Baseliza honek Santo Tomas zaharra ermitaren antzerako eraikin moldea du. Atze aldeko horman eta leihoa eginez, 30 zm. diametroa duen gurutze landua dago. Barruan, ostera, goiko habeetan, egurrean landuak 2 ume edo aingeru agertzen dira. Aipagarri ere elizaterpean kanpaia eusteko asmatua dagoen tramankulua.

46. Irudia: Kanpaia eskegitzeko uztarri-sistema.

Antonio edo Anton hau, egiptoarra zen eta 18 urterekin basamortura joan zen ermitau, hau da, bizitza bakartia, otoitzean eta isolatua eramanez. 105 urterekin hil zen (Ribera 1953: 964). Etxeko abereen aldeko patroia eta zaindaria da. Jaia urtarrilaren 17an ospatzen da. Egun honetako erromerian, baserriko produktuak zozketatzen dira eta ohitura honek badirau.

47. Irudia: San Anton abadea (Ezk.: Ribera 1953: 964). San Antonio abereen zaindaria (ZEMen atarata).

Datu historikoren bat aipatzearren, esan 1550. urtean ermiten ondasunen lerrokapena zehaztu zenean, Barañaoko San Antoniok zuen basoak hamalau urterik behin, 50 egur-karga ematen zituela. Eta, 1793. urtean, Barañaoko San Antonio eta Etxasoko San Esteban baselizak zuritu egin ziren, eta horregatik 6 erreal eta 16 marabedi ordaindu.

2.14. Argiñaoko San Adrian

Ermita hau ikustatzeko Arantzazuko plazaren ondotik hasi beharko dugu kotxe-ibilaldia. Argiñao auzora heltzeko errepidea aldapatsua igo eta gero, auzoa bera zeharkatuko dugu eta Argiñao auzotik Mandoia mendirako bidean, 500 metrora dagoen ermita da.

48. Irudia. San Adrian ermita (Alzola 1995: 48-49)

Baseliza honek hiru aldetan elizpea du, egurrezko zutabeen gurutzaketa artistikoak dauzka. Atze aldean, leiho antzera, metro erdiko gurutzea egiten duen harri landu dotorea eta historikoa dago. Harrian bertan zirkulu landuak agertzen dira.

49. Irudia: San Adriango gurutzea (Alzola 1995: 48-49)

San Adrian martiriak, kristautasun fedea sinestu zuenez geroztik, kartzela eta torturak jasan behar izan zituen. II. mendean hil zela uste da. Abereen izurriteen edo epidemien aurkako zaindaria da. Irailaren 8ko santua bada ere, abuztuaren lehen domekan ospatzen da bere jaia eta Arantzazu herriko gazteriak antolatu izan ditu. Zeberioko Argiñao eta Ibarrondo auzoetan ospatzen da.

50. Irudia: San Adrian (ZEMen atarata).

San Adrian ermitaz datu historiko bat aipatzearren, 1793. urtean, ondoko ordainketak egin ziren: “36 reales y 17 maravedíes pagados a cuatro oficiales carpinteros de un peón que se ocupó en los repasos de retejo y composición de la ermita de San Adrián. Iten, 5 reales por el coste que tuvo la cerraja que se hizo para dicha ermita de San Adrián” (BKA, 781/10).

Bitxia da hurrengo koinzidentzia: Zeberioko Argiñao auzoko San Adrian ermita, Elorrioko Argiñeta auzoko San Adrian baseliza, eta Nafarroako Argiñanoko San Adrian ermita. Lehenengo bietan, hondakin arkeologikoak aurkitzen direlarik, antzerako toponimoak dauzkagu eta Adrian santu berbera.

2.15. Undurragako San Justo eta San Pastor

Ugaotik Artearako errepidean Undurraga auzoaren. eskumaldean eta bide bazterrean dagoen ermita da, mende hasieran, berrehun bat metro gorago kokatua bazegoen ere. Aurre aldean, zurezko hesia du eta gurtzen diren San Justo eta San Pastor bi santuak ikusi daitezke.

51. Irudia: Undurragako ermita.

Elizak santu bi hauen jaia, abuztuaren 6an ospatzen du. Hala ere, jaia uztailaren 31an, San Ignazio egunez burutzen da urtero. Bertan parte hartu izan duten auzoak hauek dira: Kareaga, Etxebarri, Ugarte, Undurraga, Zabala, eta gaur egun, jadanik Zeberio diren Albitzu eta Leitoki auzoak.

52. Irudia: Undurragako ermitaren elizaterpea.

Kristauen aurkako zapalkuntza basatietan, Daziano diktadore erromatarren denboran, Alcalá de Henares herrian jaiotako bi anaia hauek Justo (7 urte) eta Pastor (9 urte) eskolan zebiltzan, epaitegira aurkeztu ziren, eta ondoren torturatu egin zituzten.

53. Irudia: San Justo eta San Pastor.

Datu historikoez esan, esaterako, 1550. urtean ermiten ondasunen lerrokapena zehaztu zenean, Undurragakoak zuen basoak hamalu urterik behin, 25 egur-karga eman zitzakeela, eta horren arduraduna Martin Undurraga zela. Bestetik, 1793. urtean, 18 erreal ordaindu zizkietela San Justo eta San Pastor ermitaren konponketak burutu zituzten ofizialei, bertan erabilitako karea barne zegoelarik.

2.16. Ermitabarriko San Antonio

San Antonio hau, Lisboan jaio zen 1196. urtean, eta Italiako Padua herrian hil 1231ko ekainaren 13an. Egun horretan ospatzen da bere jaia. Pobreen, berba egiteko zailtasunak dauzkaten umeen eta mirakuluen santua da (Ribera 1953: 1117). Hainbat santu eta santa gurtzen dira: Santa Teresa, Santa Ana, San Jose (Arregi 1999: 441). Ermita honetan erretaula dotorea eta pulpitoa ere mantendu egiten dira oraindik. Oraindik, San Antonio egunez, Ermitabarri auzoan jaia antolatzen da.

54. Irudia: Ezk.: Paduako San Antonio (Ribera 1953: 1117); Esk.: San Kurtze ermitan dagoen San Antonio.

Ermita hau nahiko berria da, Olabarrietako Santo Tomasek zuen Elezbaso deitutako lurrean eraiki zen, eta hortik datorkio auzoari izena, Ermitabarri. Ermita egiten ibilitako langileak, zeberioztarrak izan ziran gehienbat: Ereñotza auzoko Ipiñena baserriko uzaba zen Tomas Ipiña Aldekoa maisu hargina, Maria Usaolagaz ezkondua egon zena.



55. Irudia: San Antonio, 1920 (Ortega 2001: 218).

1727ko abuztuaren 3an, batzarrean bildutako Martin Arana Urraza eta Patxi Agirre bi partzialitateko Fiel errexidoreek eta hainbat auzokidek Elezbaso deitutako lekuan Paduako San Antonio deunaren aldeko ermita bat eraikitzea erabaki zuten. Sei egun geroago, abuztuaren 9an, Tomas Ipiña Ereñotza maisu hargina buru delarik, eta Jose Arteaga Ereñoza, eta Martin Ipiña Ametzola bermari (fiador) lez, hirurek mankomunean, Paduako San Antonio ermita berria eraikitzeko idazkia sinatu zuten (ZUA; 34. karp., 73. fol., Juan Ignazio Rio Barañano eskribaua).

Ermita honek bere aurre alde osoan agertuz, burdinaz osotutako hesi dotorea eta ikusgarria dauka. Hain da ederra, merezi du J. Langek dioskuna errepikatzea, "A la construcción del tejado, en 1731, siguió la instalación de la reja de hierro. La reja consiste en 72 barras de hierro labrado de diferentes tamaños. Estas barras llegaron sueltas a Zeberio y la composición se ejecutó al pie de obra: 1.005 reales "*el gasto de clavar el dicho enrejado*". Juan de Aldecoa Ybarra fue el responsable de colocar la reja: 100 reales "*por poner los andamios y clavar la reja, en que se incluye el trabajo del aparejo*"" (Lange 1996: 164). Harlanduz osotutako zutabeetan oinarrituriko aterpea oraintsu berriztatua dago.

56. irudia: Ermitabarriko burnizko hesi ikusgarria.

Artxiboak eta Museoak

BKA. Bizkaiko Korrejimenduaren Artxiboa. Bilbo.
DEA. Derio Eliz Artxiboa. Derio.
RChV. Valladolideko Errege-Kantzelaritza. Valladolid.
ZEM. Zeberioko Eliz Museoa. Zeberio.
ZUA. Zeberioko Udal Artxiboa. Zeberio.

Bibliografia

Alzola Caviedes, I. (1994): *Zeberio*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.

Arregi, G. (1987): *Ermitas de Bizkaia*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia-Labayru Institutoa. 3 Tomo.

Arregi, G. (1999): *Origen y significación de las ermitas de Bizkaia*. Bilbao: Instituto Labayru. Bizkaia Kutxa.

Askoren Artean (1996): *Ars Lignea. Zurezko elizak Euskal Herrian. Las iglesias de madera en el País Vasco*. Madrid: Electa.

Caro Baroja, J. (1979): *La estación del amor. Fiestas populares de Mayo a San Juan*. Madrid. Taurus.

Etxebarria Aiesta, J.M. (1995): *Gorbeia inguruko Etno-ipuin eta Esaundak*. Bilbao: Labayru Ikastegia/BBK.

Iturriza, J.R. (1967): *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Bilbao: Libr. Arturo.

Labayru Institutoa (1987): *Bizkaiko baselizak. Ermitas de Bizkaia.* Bilbao: Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa.
Lange J. (1996): *Economía rural tradicional en un valle vasco. Sobre el desarrollo de estructuras mercantiles en Zeberio en el siglo XVIII*. Bilbao: Beitia.
Lizarralde, J.A. (1934): *Andramari*. Bilbao: Impr. Dochao.
Martija, E. (1982): *Ermitas en el paisaje de Vizcaya*. Temas Vizcaínos. nº 85. Bilbao: CAV.
Ortega, V. (2001): *3.000 viejas fotos para la historia de Bizkaia.* Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca. Tomo III.
Perez Urraza, Kepa (2000): *Zeberion zehar ermitaz ermita. Ibilaldirako gida laburra*. Zeberio: Austarri-Korta Kultur Elkartea. Typoscrit.
Perez Urraza, Kepa (2000): *Zeberioko mapa historiko-didaktikoa*. Zeberioko Udala. Bilbao: Ekkar.
Ribera, L. (1953): *Misal diario latino-español y devocionario*. Barcelona: Ed. Regina.
Salbidegoitia, J.M. (1976): *El Valle de Ceberio. Aproximación a su historia.* Lizentziatura Tesina. Typoscrit. Bilbao.
Santano A. et al. (1996): "Deskribapen katalogoa. Catálogo descriptivo", in Askoren artean: *Ars Lignea. Zurezko elizak Euskal Herrian. Las iglesias de madera en el País Vasco*. Madrid: Electa.
Turrillas A. (2006): *Zeberioko ermitak. Ermitas de Zeberio*. Zeberioko Udala.
Zorrozua, J. (1998): *El retablo barroco en Bizkaia*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.